



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA
ANTOLAKETA eta JARDUERA ARAUDIA



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK	2
I. TITULUA – XEDEA ETA APLIKAZIO-EREMUA.....	2
II. TITULUA – HEZKUNTZA-PRINTZPIOAK ETA HELBURUAK.....	3
III. TITULUA – GOBERNU- ETA KUDEAKETA-ORGANOAK	3
1. Kapituluak – Batzar Nagusia	3
2. Kapituluak – Zuzendaritza Batzordea	5
3. Kapituluak – Zuzendaria	9
4. Kapituluak – Administrazio-Idazkaria	11
5. Kapituluak – Irakasleen Klaustroa	12
6. Kapituluak – Departamentuak.....	12
7. Kapituluak – Irakasleak.....	13
8. Kapituluak – Ikasleak	15
9. Kapituluak – Instalazioen eta materialaren erabilera	16
IV. TITULUA – ADMINISTRAZIO-ARAUBIDEA.....	16
1. Kapituluak – Matrikulazio-araubidea	16
2. Kapituluak – Kuotak.....	18
3. Kapituluak – Bajak	18
4. Kapituluak – Eskola-egutegia.....	19
5. Kapituluak – Eskolaren Urteko Plana eta Urteko Memoria	19
6. Kapituluak – Erreklamazioak	20
7. Kapituluak – Tramiteak.....	20
V. TITULUA – BIZIKIDETZARAKO ARAUDIA.....	21
1. Kapituluak – Bizikidetzaren arauen helburu nagusia	21
2. Kapituluak – Hezkuntza komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak.....	21
3. Kapituluak – Ikasleen arau-hausteak.....	22
4. Kapituluak – Ikasleen arau-hausteak zuzentzea.....	23
VI. TITULUA – AZKEN XEDAPENAK	27
VII. TITULUA – ERANSKINAK.....	27



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

ATARIKO TITULUA – XEDAPEN OROKORRAK

Bizkargi Musika eta Dantza Eskola elkarte, Azkoitiko Aita Madinabeitia kalean dagoena, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan inskribatuta dago, AS.R.P.G.01447 erregistro-zenbakiarekin. Elkartearen titulartasuna elkarteak kudeatzen duen Zuzendaritza Batzordeari dagokio.

Bizkargi Musika eta Dantza Eskola D ereduko eskola da, arautu gabeko musika-irakaskuntzetan espezializatua eta 012398 kodearekin Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean inskribatua. Azkoitiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren dirulaguntzekin eta ikasleen kuotekin finantzatzen da Eskola.

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren Antolaketa eta Jarduera Araudia hau oinarritzko tresna da Eskolaren antolaketarako eta funtzionamendurako, bere funtzionamendua egokia eta eraginkorra izan dadin. Araudi lege-oinarri hau du oinarri:

- Bizkargi Musika eta Dantza Eskola Elkartearen Estatutuak.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena.
- Maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko musika eta dantza-eskolena.

I. TITULUA – XEDE ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da Bizkargi Musika eta Dantza Eskolari antolaketarako eta funtzionamendurako oinarritzko tresna bat ematea, dokumentu juridiko-administratibo gisa eta antolaketarako barne-arauen multzo gisa eratuz.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Araudi honen jarduera-eremuak eta aplikazioak Eskolako zuzendariari, irakasleei, ikasle guztiei eta guraso edo legezko tutore guztiei eragiten die. Eskolan matrikulatzeak araudi hau onartzea dakar.

Araudi hau eskola-esparruaren barruan aplikatuko da Eskolan nahitaez egon beharreko orduetan, bai eta jarduera osagarrietarako, entzunaldietarako edo Eskolatik kanpoko ekitaldietarako lagatako guneetan ere.

Araudia zabaltzeko, Musika Eskolan matrikula egiten duten ikasle guztiei kontsulta egiteko aukera emango zaie, bai eta hala eskatzen duen orori ere, Eskolaren webgunean argitaratuz.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

II. TITULUA – HEZKUNTZA-PRINTZIOAK ETA HELBURUAK

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren jarduera, bere Curriculum Proiektu malguaren bidez, herritarrek musika ezagutu eta gozatzera bideratuta dago. Curriculum horrek, titulazio akademiko ofiziala lortzera bideratuta ez badago ere, kalitatezko irakaskuntza eskaintzen du. Gainera, musika-, dantza- eta ahots-taldeak sortzea, instrumentisten prestakuntza eta musikaren hedapen soziokulturala sustatzen ditu. Era berean, lanbide-irakaskuntzarako orientazioa eskaintzen die horretarako gaitasunak eta interesa erakusten dituzten ikasleei.

Halaber, Eskolak herritarren ongizate emozional, fisiko eta sozialera bideratutako eskaintza du. Eskaintza honen helburu nagusia pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, bai fisikoki, bai emozionalki. Gainera, interakzio soziala sustatzen da, talde batean parte hartzeak aukera ematen baitu pertsonen arteko harremanak ezartzeko eta lotura berriak sortzeko.

III. TITULUA – GOBERNU- ETA KUDEAKETA-ORGANOAK

1. KAPITULUA – BATZAR NAGUSIA

3. artikulua. Batzar Nagusia.

- a) Batzar Nagusia Bizkargi Musika eta Dantza Eskola Elkarteko Organo Gorena da eta elkartekide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira elkartekideen nahiak.
- b) Elkartekide izan daitezke honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak:
 1. Pertsona fisikoak: Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.
 2. Pertsona juridikoak: Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.
 3. Boluntarioak: beren jarduna borondatez eta eskuzabaltasunez eskaintzen duten pertsonak, edo lankidetzat pertsonala eskuzabaltasunez eta iraunkorki eskaintzen dutenak.

4. artikulua. Batzar Nagusiaren bilkurak.

- a) Batzar Nagusiak ezohiko eta ohiko bilkurak egingo ditu.
- b) Batzar Nagusiak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, artikulua honetako h) idatz-zatiko 1.,2. eta 3. puntuetan zehaztutako erabakiak hartze aldera.
- c) Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota elkartekideen % 51k eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

1. Estatutuak aldatzeko.
 2. Elkartea desegiteko.
- d) Batzar Nagusiak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz erataka geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertarutzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.
- e) Batzar Nagusiaren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Dena den, bertaratutakoena edo ordezkaturakoena gehiengo osoa beharko da (erdia + 1), honako erabaki hauek hartzeko:
1. Elkartea desegitea.
 2. Estatutuak aldatzea.
 3. Ondasunak erabili edo besterentzea.
 4. Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.
- f) Elkartekideek edozein elkartekideren utzi dezakete beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkarteren egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren elkartekideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezake.
- g) Elkartekide bakoitzak bost elkartekide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.

5. artikulua. Batzar Nagusiaren ahalmenak.

- a) Elkarteren jarduera plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Presidentetza, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j) Elkartekideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- k) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

2. KAPITULUA – ZUZENDARITZA BATZORDEA

6. artikulua. Zuzendaritza Batzordea.

- a) Zuzendaritza Batzordea da Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa.
- b) Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa. Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: Presidentetza, Presidenteordetza, Idazkaritza, Diruzaintza eta 3 batzordekide: Eskolako zuzendaria, irakasleen klaustroko irakasleen ordezkari bat eta Udaleko Kulturako zinegotzia.
- c) Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kideak izateko:
 1. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
 2. Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
 3. Erakundeko elkartekidea izatea.
- d) Zuzendaritza Batzordeko kideek konpromisoa hartuko dute Batzordean dauden bitartean eskura ditzaketan informazioak eta dokumentuak isilpean gordetzeko, eta konfidentzialtasun konpromisoaren dokumentua sinatuko dute nahitaez.

7. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen bilkurak.

- a) Batzordearen bilkurak Presidenteak edo, hala badagokio, Presidenteordeak erabakitzen duen guztietan egingo dira, bere ekimenez edo edozein elkartekidek eskatuta. Presidenteak izango da buru, eta, hori ez badago, Presidenteordea, eta, biak ez badaude, batzordekiderik zaharrena.
- b) Batzordearen bilkurak kide guztiak bertaratu daitezkeen orduan eta egunean egingo dira. Bilkuraren deialdia Presidenteak bidaliko die batzordekideei. Deialdiarekin batera, bilkuraren gai zerrenda, eztabaidatu beharreko dokumentuak. Kideek bilkura egin baino astebete lehenago jasoko dituzte agiri horiek guztiak.
- c) Ezohiko bilkurak deitu ahal izango dira, gai batzuk premiaz aztertu behar badira, betiere 48 ordu lehenago deitzen badira.
- d) Batzordea gutxienez hiru hilean behin bilduko da, baita Eskolaren jardueren garapen egokiak eskatzen duen bakoitzean ere.
- e) Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilkura horietara 2 aldiz jarraian, edo, tarteka 4 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.
- f) Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, presidentetzaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.
- g) Idazkariak bilkuren akta egingo du.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

8. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kargudunen betekizunak.

- a) Adinez nagusia izatea, eskubide zibil guztiak erabiltzea eta indarreko legerian ezarritako bateraezintasun arrazoietan sartuta ez egotea.
- b) Estatuetan aurreikusitako moduan izendatzea.
- c) Elkartekide izatea.

9. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko karguen iraupena eta kargu-uztea.

- a) Batzar Nagusiak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek 4 urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.
- b) Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua utziko dute honelakorik gertatuz gero:
 - 1. Agintaldia bukatzen denean.
 - 2. Dimititzen dutenean.
 - 3. Elkartekide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
 - 4. Artikulu honetako a) idatz-zatia aplikatuz, Batzar Nagusiak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
 - 5. Hiltzen direnean.
- c) Baldin eta kargua uzteko arrazoa 1. idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar nagusia egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.
- d) Arrazoa 2.,3., 4. eta 5. idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Nagusiak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.
- e) Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

10. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak.

- a) Elkarteen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Nagusiaren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarreak aurrera eramango dituen jardueren egitaraua egitea. (Urteko Plana)
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Nagusiari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Nagusiaren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Elkartekideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- g) Kuotak onartzea, Batzar Nagusiak ahalmen hori Zuzendaritza Batzordearen esku utzi baitu.
- h) Eskolako Hezkuntza Proiektua onartzea.
- i) Eskolaren Antolakuntza eta Jarduera Araudia aldatzea, zabaltzea edo berrikustea onartzea.
- j) Eskola egutegia onartzea.
- k) Eskolaren Urteko Plana onartzea.
- l) Eskolaren Urteko Plana onartu ondoren programatutako jarduerak onartzea.
(I.ERANSKINA)
- m) Eskolaren Urteko Memoria egitea Batzar Nagusiari aurkezteko, onar dezan.
- n) Eskolako Zuzendaritzak proposatutako irakasleen kontratazioa onartzea.
- o) Eskolako hezkuntza komunitateko kideek egindako erreklamazioak ebaztea.
- p) Elkartekideen proposamenei edo iradokizunei erantzutea, eta horretarako beharrezko neurriak hartzea.
- q) Erakunde ofizialekin beharrezko harremanak izatea, Elkartearen helburuak sustatzeko.
- r) Eskolaren jarduera plana ezartzea, Azkoitiko Udalak eskuordetutako eginkizuna betez.
- s) Batzar Nagusiak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen esklusibokoak.

11. artikulua. Presidentetza eta ahalmenak.

Batzordearen legezko ordezkaritza bere gain hartzen du, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Bi organo horietako presidentea izango da, eta eskumen hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar nagusiaren bilkura-deiak egin, bilkurak bukatutzat eman, bilkuretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Nagusiak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen esklusibokoak.

12. artikulua. Presidenteordetza.

Presidenteordeak Presidenteari lagunduko dio eta, aldi batez bere kargua bete ezin badu, ordezkatu egingo du. Halaber, Presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

13. artikulua. Idazkaritza.

Idazkariari dagokio, zehazki, Akta Liburua zaintzea eta idaztea. Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzen direla zainduko du, erakundearen dokumentazio ofiziala zainduz.

14. artikulua. Diruzaintza.

Diruzainak egindako diru sarreraren eta ordainketen berri emango du, eta diru sarreraren eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria formalizatuko ditu. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio, eta hark Batzar Nagusiari, hala badagokio, onar ditzan.

15. artikulua. Batzordekideak.

Batzordekideek beren karguei datzekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

16. artikulua. Zuzendaritza Batzordea berritzea.

Zuzendaritza Batzordeak, Eskolako zuzendariarekin batera, hauteskunde prozesua hasiko du ikasturteko bigarren hiru hilabetean, eta honela antolatuko du:

- a) Hauteskunde egutegia finkatzea
- b) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako kide guztiei (gurasoak, adin nagusiko ikasleak eta irakasleak) jakinaraztea Zuzendaritza Batzordeko hautagaitzak aurkezteko epea ireki dela.
- c) Batzar Nagusia deitzea hautagaiak hautatu eta izenda ditzan.

17. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko karguez jabetzea.

- a) Batzar Nagusiak izendatutako hautagaiak kargua onartu behar dute.
- b) Gainerako hautagaiak erreserban geratuko dira Zuzendaritza Batzordearen agintaldian sor daitezkeen hutsunak betetzeko.

18. artikulua. Zuzendaritza Batzordea berritzea.

- a) Zuzendaritza Batzordearen aldaketa nahitaez inskribatu beharko da Elkarteen Erregistroan, kargudunak berrautatuak izan nahiz berriak izan.
- b) Elkarteak ez badu bete gertatutako aldaketak (Presidentea, Idazkaria, Diruzaina eta, hala badagokio, kide anitzeko batzordeko kideak) Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari komunikatzeko betebeharra, edo aldaketak ez badira gauzatu estatutuetan aurreikusitako epeetan, Zuzendaritza Batzordearen aldaketa eskatzen



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

duen unean erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu beharko da, adierazteko zein izan diren horrela jokatzeko arrazoiak (aitortpena Presidenteak izenpetuko du, edo, bestela, Idazkariak ziurtatuko du, Presidentearen oniritziarekin).

- c) Zuzendaritza Batzorde berria Elkartearen Erregistroan inskribatzeko izapidea elektronikoki egingo da, Batzar Nagusiaren bileraren ziurtagiria aurkeztuz (Elkartearen Erregistroaren web-orrian horretarako prestatutako inprimakia).

3. KAPITULUA – ZUZENDARIA

19 artikulua. Zuzendaria.

- a) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria klaustroko irakasle bat izango da. Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du, Eskolako irakasleen klaustroak proposatuta.
- b) Eskolako zuzendari izateko hautagaiak Antolakuntza eta Jarduera Araudi honetako 24. artikuluko xedapenetan zehazten diren betekizunak bete beharko dituzte, bai eta hautaketa prozedura, agintaldiaren iraupena eta eginkizunen lagapena ere.
- c) Zuzendaritza kargua gutxienez 4 urtez bete beharko da, izendatzen denetik eta karguaz jabetzen denetik.
- d) Zuzendaritza kargua utzi ahal izango da honako kasu hauetan:
 - 1. 4 urteko agintaldia amaitzean. Hala ere, iraupen bereko aldietan errepikatu ahal izango da, betiere alderdien (irakasleen klaustroa eta Zuzendaritza Batzordea) arteko adostasuna badago.
 - 2. Zuzendaritza Batzordeko kideen 2/3aren erabakiz kargugabetzea.
 - 3. Dimisio arrazoitua aurkezten denean.
- e) Zuzendariak batera beteko ditu zuzendaritza kargua eta irakaskuntza eginkizuna. Bi zeregin horietan emandako ordu kopurua une bakoitzeko premien eta zirkunstantzien arabera izango da, betiere Eskolaren interesak lehenetsiz.

20. artikulua. Zuzendari kargurako hautagaiaren betekizunak.

- a) Euskara HE2, C1 edo baliokidea egiaztatua izatea.
- b) Musikako Goi Mailako Titulazioa edo halakorik ezean, Musika eta Dantza Eskolan ematen duen espezialitatearen Habilitazioa izatea.
- c) Eskolako irakaslea izatea eta gutxienez 3 urteko antzintasuna izatea Eskolan.
- d) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolan gutxienez %60ko lanaldia izatea.
- e) Eskolako Idazkaritzaren ordutegian egunero goizez eta arratsaldez egon ahal izatea.

21. artikulua. Zuzendaria hautatzeko prozedura.

Zuzendari berria hautatzeko eta izendatzeko prozesua jarraian zehazten diren epeak eta urratsak errespetatuz egingo da nahitaez:

- a) Eskolako zuzendariak lehenengo hiru hilabetea amaitu baino lehen hasiko du zuzendari berria hautatzeko eta izendatzeko prozesua. Klaustroa deituko du, irakasleei zuzendari



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- berria hautatzeko prozesuaren berri emateko. Zuzendariak online bertaratzea erraztuko die bilera horretara joan ezin diren irakasleei.
- b) Hautagaiak 30 egun naturaleko epea izango dute, klaustroa biltzen den egunetik hasita, beren hautagaitzak eta, hala badagokio, proiektuak klaustroari aurkezteko, irakasleek azter eta balora ditzaten.
 - c) 30 egun naturaleko epe hori amaitutakoan, zuzendariak posta elektronikoz bidaliko die klaustroko irakasle guztiei hautagaien zerrenda. Irakasleek 3 laneguneko epea izango dute botoa emateko Eskolako idazkaritzan horretarako jarriko den hautestontzian.
 - d) Bozketa aldia amaitutakoan, zuzendariak zenbaketa egingo du klaustroko kide baten aurrean.
 - e) Klaustroak gehiengo soilez aukeratuko du zuzendari berria, bai hautagai bakarra aurkezten bada, bai hautagai bat baino gehiago aurkezten bada.
 - f) Eskolako zuzendariak Zuzendaritza Batzordeko presidenteari jakinaraziko dio klaustroak Eskolako zuzendari kargurako aukeratutako hautagaia.
 - g) Zuzendaritza Batzordeko presidentek Zuzendaritza Batzordeari dei egingo dio Eskolako zuzendari berria onartu eta izenda dezan, Eskolako zuzendariak jakinarazpena egin eta 7 egun naturaleko epean.
 - h) Zuzendaria hautatzeko prozesua hasteko unean hautagairik ez badago edo aurkeztutako hautagaiak/hautagaiak Klaustroaren onespina lortzen ez badute, Zuzendaritza Batzordeak, zuzendariari entzun ondoren, bitarteko zuzendaria izendatuko du gehienez urtebeterako.
 - i) Urte hori igarota, zuzendari berria hautatzeko prozesuari ekingo zaio berriro.

22. artikulua. Zuzendariaren zereginak.

- a) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren ordezkari izatea, gainerako hezkuntza-agintarien eskumenak alde batera utzi gabe, eta Administrazioaren ordezkari ofiziala izatea.
- b) Legeak eta indarrean dauden gainerako xedapenak betetzea eta betearaztea.
- c) Agintariak eta interesdunek eskatzen dituzten egiaztagiriak ematea.
- d) Udalak eta Hezkuntza Sailak eskatzen dituen dokumentu ofizialak egitea.
- e) Irakasleen lana koordinatzea eta gainbegiratzea, beren erantzukizunak betetzen dituztela ziurtatzea.
- f) Eskolaren eta inguruko erakundeen arteko harremanak sustatzea eta bultzatzea.
- g) Eskolaren Urteko Plana prestatzea eta zuzendaritza Batzordeari aurkeztea.
- h) Eskolaren jarduera eta egoera orokorrari buruzko urteko memoria Zuzendaritza Batzordeari, Batzar Nagusiari eta agintari eskudunei aurkeztea.
- i) Eskolako giza baliabideak kudeatzea.
- j) Eskolako baliabide materialak kudeatzea.
- k) Eskolako idazkaritzan egotea jendeari arreta emateko ezarritako ordutegian.
- l) Irakasleen klaustroaren bilkurak deitzea eta bilkura horien buru izatea.
- m) Klaustroaren bilkuren aktak egitea, administrazio-idazkaria irakasle ez den langilea denean.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- n) Eskolaren jarduera guztiak zuzendu eta koordinatzea, Eskolako organoei dagozkien eskumenak alde batera utzi gabe.
- o) Irakasleen eta ikasgaien ordutegiaren urteko antolaketa kudeatzea.
- p) Matrikulazio-prozesua antolatzea eta argitaratzea.
- q) Eskolako iragarki-taula eta webgunea eguneratzea.
- r) Eskola-komunitateko kideen iradokizunei, zalantzei, kexei edo erreklamazioei erantzutea eta, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordeari helaraztea.
- s) Eskolako jarduerak egitearen eta araudi hau betetzearen eta aplikatzearen ondoriozko beste edozein eginkizun.

4. KAPITULUA – ADMINISTRAZIO-IDAIZKARIA

23. artikulua. Administrazio Idazkaria.

- a) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako administrazio-idazkaritza, ahal dela, bertako irakasle batek beteko du, Zuzendaritza Batzordeak izendatuta.
- b) Administrazio idazkari kargua gutxienez 4 urtez bete beharko da, izendatzen denetik eta karguaz jabetzen denetik.
- c) Administrazio idazkaria irakaslea bada, batera beteko ditu administrazio eginkizunak eta irakaskuntza eginkizuna. Bi eginkizunetan emandako ordu kopurua unean uneko premien eta zirkunstantzien arabera izango da, betiere Eskolaren interesei lehentasuna emanaz.
- d) Administrazio idazkari kargua utzi ahal izango da honako kasu hauetan:
 - 1. 4 urteko epea amaitzean. Hala ere, iraupen bereko aldietan errepikatu ahalko da.
 - 2. Zuzendaritza Batzordeko kideen 2/3aren erabakiz kargugabetzea.
 - 3. Dimisio arrazoitua aurkezten denean.
- e) Administrazio eginkizunak betetzeko irakaslerik ez badago, Zuzendaritza Batzordeak langilea kontratatuko du eginkizun horiek betetzeko.

24. artikulua. Administrazio Idazkariaren zereginak.

- a) Eskolako administrazio lanez arduratzea.
- b) Zuzendariari aholkularitza eta laguntza ematea Eskolaren antolaketan, gobernuan eta administrazioan.
- c) Datu akademikoak antolatzea.
- d) Klaustroaren bileren aktak egitea, kargua irakasle batek betetzen badu.
- e) Eskolako Idazkaritzan jendeari arreta ematea.
- f) Zuzendariak bere eskumenen arabera esleitzen dizkion gainerako zereginak.
- g) Araudi hau betetzetik eta aplikatuzetik eratorritako gainerako zereginak.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

5. KAPITULUA – IRAKASLEEN KLAUSTROA

25. artikulua. Irakasleen Klaustroa.

Irakasleen klaustroa da irakasleek ikastetxe baten gobernuan eta funtzionamenduan parte hartzeko organo goren. Irakasle-talde osoak osatzen du, eta zuzendaria du buru. Irakaskuntza alderdi guztiak planifikatzeko, koordinatzeko eta horiei buruzko informazioa emateko erantzukizuna du.

26. artikulua. Klaustroren zereginak.

- a) Eskolaren Curriculum Proiektua lantzea eta onartzea.
- b) Ikasleen ebaluazioari buruzko irizpideak finkatzea eta lantzea.
- c) Eskolaren Urteko Planerako proposamenak egitea.
- d) Eskolaren Urteko Memoria.
- e) Zuzendaritza Batzorderako irakasle ordezkaria hautatzea.
- f) Araudi hau betetzetik eta aplikatetik eratorritako gainerako zereginak.

27. artikulua. Klaustroren bilkurak.

- a) Irakasleen klaustroak ohiko bilerak egingo ditu ikasturtearen hasieran eta amaieran, eta ezohiko bilerak, berriz, zuzendaritzak deitzen duen bakoitzean.
- b) Klaustroko kideen ohiko bilkurak gutxienez astebete lehenago deitu beharko dira, gai zerrendarekin batera, eta ohiz kanpokoak, bi egun lehenago, presako bilkura bereziak izan ezik, horiek presako deialdia klaustroak berak berretsi beharko baitu.
- c) Aldeko botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, hau da, aldeko botoek aurkakoak gainditzen dituztenean. Berdinketa gertatuz gero, beste bozketa bat egingo da, eta berdinketak jarraitzen badu, zuzendariaren kalitateko botoak erabakiko du.
- d) Gai zerrenda Zuzendariak egingo du, eta gai zerrendako gai guztiei buruzko dokumentazio guztia bidaliko zaie klaustroko kide guztiei.
- e) Bilkuraren akta administrazio idazkariak edo Eskolako zuzendariak (administrazio idazkaria irakaslea ez bada) egingo du.

6. KAPITULUA – DEPARTAMENTUAK

28. artikulua. Departamentuak.

Departamentuak arduratzen dira dagozkien espezialitateen eta ikasgaien berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta garatzeaz, bai eta esleitzen zaizkien jarduerak antolatzeaz eta garatzeaz ere. Bizkargi Musika eta Dantza Eskolan honako departamentu hauek eratu dira:

- Sustrai Tradizionaleko Musika eta Dantza
- Musika Hizkuntza
- Ahotsa eta Kantua
- Teklatua eta Akonpainamendu Instrumentala



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- Soka
- Haizea, Perkusioa eta Banda
- Musika Modernoa eta Konboak

29. artikulua. Departamentuen zereginak.

- a) Departamentua osatzen duten ikasgaien eta espezialitateen programazio didaktikoa antolatzea eta berrikustea.
- b) Departamentua osatzen duten irakasgaien eta espezialitateen programazio didaktikoa antolatzea eta berrikustea.
- c) Programazioetan ezarritako helburuetarako egokiak diren metodologia eta material didaktikoak hautatzea.
- d) Beste departamentuekin lankidetzan jarduerak antolatzea eta egitea.
- e) Urteko Plana egiten parte hartzea.
- f) Irakaskuntza-jardueran balorazioa egitea Eskolaren Urteko Memoriarako
- g) Araudi hau betetzetik eta aplikatuzetik eratorritako gainerako zereginak.

7. KAPITULUA – IRAKASLEAK

30. artikulua. Irakasleen eskubideak.

- a) Sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako eskubide guztiak.
- b) Lan jarduera baldintza egokietan egitea: baliabide egokiekin eta beharrezko segurtasun eta higiene baldintzekin.
- c) Nahi gabeko istripuengatik erantzukizun zibil orotatik babestuta egoteko eskubidea.
- d) Irakasleek, familiek eta hezkuntza-komunitate osoak errespetatzea.
- e) Eskolako baliabide materialak eta instalazioak erabiltzea hezkuntza helburuetarako, horien erabilera arautzen duten arauak betez.
- f) Irakasleen garapen-mailari eta gaitasunei ondoen egokitzen zaizkien irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodoak erabiltzea, Hezkuntza Proiektuan eta Eskolako Curriculum Proiektuan ezarritako ildoan barruan.
- g) Eskolaren funtzionamenduan, antolaketan eta kudeaketan esku hartzea eta parte hartzea, horretarako ezarritako bideen bitartez.
- h) Zuzendaritza Batzordeko kide izateko hautagaitza aurkeztea.
- i) Lanbidean jarduteko prestakuntza jasotzeko eskubidea.

31. artikulua. Irakasleen betebeharrak.

- a) Hezkuntza eginkizuna betetzea, Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Araudia errespetatuz.
- b) Irakasleen ebaluazio eginkizuna garatzea programazio didaktikoan ezarritako irizpideen arabera.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- c) Metodologia Eskolak ezarritako ildo pedagogikoaren arabera garatzea.
- d) Ikasleen bertaratzea kontrolatzea eta hutsegiteak familiei jakinaraztea.
- e) Hiru hilean behin ikasleen ikaskuntza-prozesuari buruzko txosten bat egitea eta txosten hori dagokionari helaraztea Eskolak ezarritako bideak erabiliz.
- f) Esleitutako ikasleen tutore-lana egitea.
- g) Eskolak proposatutako formazio ikastaroetan parte hartzea.
- h) Eskolako lan orduetan egindako eta/edo Eskolak finantzatutako prestakuntza ikastaroetan lortutako materiala eta baliabideak Eskolan uztea.
- i) Zuzendaritzatik jasotako edo Klaustroan onartutako jarraibideak, neurriak, akordioak e.a. betetzea.
- j) Hezkuntza eginkizunen barruan ordenari eta diziplinari eusten laguntzea, bai ikasgelan, bai Eskolako beste eremuetan.
- k) Ikasleen arau-hauste larriak eta oso larriak Zuzendariari jakinaraztea.
- l) Lanera ez joatearen berri ematea:
 - 1. Egun jakin batean bere lanpostura joatea ezinezkoa dela aurreikusten duen irakasleak behar besteko aurrerapenez jakinarazi beharko dio zuzendaritzari, Eskolak ezarritako prozedurari jarraituz. **(II.ERANSKINA)**
 - 2. Lanera ez joateagatik eman ez diren klaseak lehenbailehen berreskuratuko dira.
 - 3. Irakasle baten baja ordezkaturiko duen langilerik ez badago, irakasle horrek irakastordua hiruhileko berean edo hurrengoan erreperatu ahal izango ditu, eta horregatik dagokion ordainsaria jasoko du.
- m) Konfidentzialtasun profesionala gordetzea ikasleei, gurasoei, legezko tutoreei eta irakasleei buruzko alderdi eta datuei dagokienez, bai eta klaustroak eta eskolako beste edozein gobernu-organok hartutako erabaki eta ebazpenei dagokienez ere, Datu Pertsonalak Babesteko Legearekin bat etorritik.

32. artikulua. Irakasleen lanaldia.

- a) Irakasleek kontratuan ezarritako lan-baldintzen arabera garatuko dute beren irakaskuntza-jarduera.
- b) Irakasleen lanaldian, bereizi egingo dira klase-egunak (kopurua, hezkuntza-administrazioaren irizpideen arabera) eta klaserik gabeko egunak.
- c) Irakasleen lanaldiak klase-orduak (instrumentuen, musika-hizkuntzaren eta taldeko ikasgaien aurrez aurreko klaseei eskainitako orduak) eta ordu osagarriak (prestakuntza-jarduerei, tutoretzei, bilerei... eskainitako orduak) izango ditu.
- d) Asteko lanaldi osoa 32 ordukoa izango da: 25 klase-ordu eta gainerakoak ordu osagarriak.
- e) Eskolako zuzendaritza bere gain hartzen duen irakasleari irakastorduen murrizketa eta ordainsari osagarria esleituko zaizkio, lan-hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

8. KAPITULUA – IKASLEAK

33. artikulua. Ikasleen eskubideak.

- a) Kontzientzia askatasuna, ideologia erlijioso, etiko eta moralak, duintasuna eta intimitatea errespetatzea.
- b) Norberaren osotasun fisikoa eta morala eta duintasuna errespetatzea, eta inola ere ez tratatu iraingarririk edo tratatu txar fisiko edo morala dakarten zehapenik jasotzea.
- c) Errendimendua, ahalegina eta dedikazioa objektibotasun osoz ebaluatzea.
- d) Jarduera akademikoa segurtasun eta higiene baldintza egokietan egitea, Eskolan aplikatzekoa den legezko esparruaren barnean
- e) Kalitateko irakaskuntza jasotzea, beren gaitasunak garatzeko Eskolako bitartekoak erabiliz.
- f) Irakasleek ebaluazio-sistemei eta -irizpideei buruzko informazioa ematea.
- g) Hiru hilean behin, gutxienez, bere ikasketen bilakaerari buruzko informazioa jasotzea.
- h) Eskola- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea.
- i) Era guztietako proposamenak, iradokizunak eta erreklamazioak egitea, Eskolak horretarako ezarritako bideak erabiliz.

34. artikulua. Ikasleen betebeharrak.

- a) Hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna eta sinesmen ideologikoak, erlijiosoak, moralak eta etikoak errespetatzea, bai eta haien duintasuna, osotasuna eta intimitatea ere.
- b) Ikaskideek ikasteko duten eskubidea errespetatzea.
- c) Eskolaren Antolaketa eta Jarduera Araudia onartzea eta betetzea.
- d) Eskolako instalazioak eta materiala behar bezala erabiltzea.
- e) Klaseetara puntualtasunez joatea.
- f) Klasera huts egitea jakinarazi eta justifikatzea, Eskolak ezarritako bitartekoa erabiliz.
- g) Eskolako jarduerak garatzeko onartutako ordutegiak errespetatzea.
- h) Ikasteko behar den denbora ematea.
- i) Urteko programazio orokorrean jasotako kontzertu eta prestakuntza-jarduera osagarrietan parte hartzea.
- j) Irakasleek beren ikaskuntzari buruz ematen dituzten orientabideak jarraitzea eta behar bezalako errespetua eta begirunea erakustea.
- k) Datu pertsonalen aldaketen berri ematea.
- l) Kuotak ordainduta izatea Eskolak ezarritako epeetan.

35. artikulua. Ikasleak klaseetara huts egitea.

- a) Ikasle bat klasera joaten ez denean, ikaslearen beraren ardura izango da klase-ordu horretan landutakoa berreskuratzea.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- b) Ikasturteko klase-ordu guztien % 20an justifikaziorik gabe huts egin duen ikasleak matrikula berritzeko eskubidea galduko du. Klase-orduen % 20ko absentismo hori lehen hiruhilekoan gertatzen bada, ikasleari baja emango zaio.
- c) Ikaslea gaixotasunagatik edo beste arrazoiren batengatik klaseetara ez joateak ez du ikaslea kuota ordaintzetik salbuetsiko.
- d) Ikasleak justifikatu gabeko hutsegiteen kopurua agortzen badu, Eskolako Zuzendariak jakinaraziko dizkio interesdunari ezarriko zaizkion neurri zuzentzaileak.
- e) Honako hauek hartuko dira hutsegite justifikatuztat:
 - 1. Gaixotasun luzea edo aldi baterakoa.
 - 2. Gertakari edo inguruabar pertsonal larriak edo salbuespenekoak.
 - 3. Musika eta Dantza Eskolaren beste edozein jarduerarekin klase-ordua bat etortzea.
- f) Ez dira justifikatuztat joko Musika eta Dantza Eskolaz kanpoko beste jarduera batzuetara (Eskolarekin zerikusirik ez duten entseguak eta jarduerak, klase partikularrak, hizkuntza eskolak, kirol jarduerak, katekesia e.a.) joateagatik egindakoak.
- g) Eskolako Zuzendaria da klaseetako hutsegiteen justifikazioak onartu edo ukatzeko eskumena duen organoa.

9. KAPITULUA – INSTALAZIOAK ETA MATERIALA

36. artikulua. Instalazioen eta materialaren erabilera.

- a) Eskolako zuzendaria da Eskolako instalazioak eta materiala erabiltzeko baimena emateko eskumena duen organo bakarra.
- b) Bizkargi Musika eta Dantza Eskolatik kanpoko pertsona edo erakunde orok Eskolako instalazioak eta materiala erabiltzeko eskaera egin nahi izanez gero, Eskolako idazkaritzara jo beharko du nahitaez, eta bertan dagokion inprimakia bete beharko du.
([III.ERANSKINA](#))

IV. TITULUA – ADMINISTRAZIO-ARAUBIDEA

1. KAPITULUA – MATRIKULAZIO-ARAUBIDEA

37. artikulua. Onarpena eta matrikulazioa.

- a) Matrikulazioari buruzko informazioa (prozedura, epeak, prezioak, taldeen ordutegiak eta matrikulatzeko dokumentazioa) Eskolaren webgunean argitaratuta egongo da, "Ikasturteko Informazioa/Matrikulazioa" eremuan.
- b) Matrikula egiteko unean, hautagaia Eskolako ikaslea izango da, eta bere gain hartuko ditu ikasle-izaeraren ondoriozko eskubide eta betebeharrak guztiak, besteak beste, **Eskolaren** Antolaketa eta Jarduera Araudian ezarritako arauak nahitaez betetzea, Zuzendaritza Batzordeak onartutako betekizunak eta erabakiak onartzea eta ondorengo lege eta erregelamenduetan ezarritako beste edozein arau betetzea.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- c) Eskolako ikasleak dira matrikulazio-aldian Eskolako ikasle aktibo gisa alta emanda daudenak.
- d) Matrikulatzeko, kuotak ordainduta eduki behar dira.
- e) Eskolako ikasleak INIKAren bidez matrikulatu beharko dira Aste Santuaren aurreko 2 asteetan. Epe horretan matrikulatu ezean, ikasle berrien aukera berberak izango dituzte, hau da, taldeak eta ordutegiak matrikularen ordenaren arabera aukeratu ahal izango dituzte.
- f) Ikasle berritzat hartuko da matrikulatu nahi den espezialitatean matrikulatzeko aldian Eskolan ikasle aktibo gisa alta emanda ez dagoena.
- g) Ikasle berriek Idazkaritzara joan beharko dute matrikula egitera Aste Santuaren ondorengo astelehenetik aurrera.
- h) Onartutako ikasleak eskolak ezarritako epean matrikulatu beharko dira. Epe horretan matrikulatzen ez direnek plaza galduko dute eta Eskolak itxaron-zerrendako ikasle bati esleituko dio plaza hori.
- i) Matrikulazio-aldia amaitutakoan, bajarik egonez gero, plaza hutsak, ahal den neurrian, itxaron-zerrendako ikasleekin beteko dira.
- j) Itxarote-zerrendak guztiak urtero berrituko dira.
- k) Bai ikasle berrientzat, bai 2. instrumentua ikasi nahi duten Eskolako ikasleentzat, eskaera-ordenaren arabera esleituko da plaza.
- l) Eskabidearen hurrenkerak ezarriko du lehentasuna kasu guztietan.

38. artikulua. Espezialitateak (Instrumentuak-Dantza-Kantua)

- a) Aukeratutako instrumentuarentzako plazarik ez badago, beste instrumentu bat aukeratu ahal izango da 2. aukera gisa. Ikaslea 1. aukerako instrumentuaren itxarote-zerrendan egongo da ikasturtearen lehenengo astea amaitu arte. Ondoren, bi aukera izango ditu: 1. Aukerako instrumentuaren itxarote-zerrendan jarraitzea edo 2. aukerako instrumentuaren plaza aukeratzea.
- b) Eskolak, aldez aurretik, hurrengo ikasturtean instrumentu bakoitzaren klaseak emango diren asteko egunak ezartzen ditu. Ordutegia behin-behinean adostuko da irakaslearekin ekainaren 30a baino lehen (egun hori barne).
- c) 1. maila edo kontaktuko 1.4 kurtsoan, instrumentua aukeratzeko orduan lehentasuna izango dute Eskolak ezarritako matrikulazio-aldian Musika ikasgaien matrikulatzen diren ikasleek.
- d) 2. mailan edo espezialitate hastapenekoa, instrumentua (panderoa izan ezik) eta kantu espezialitateak egiteko, nahitaezkoa izango da Musika Hizkuntza ikasgai 2.1. eta 2.2. mailak egitea. Musika-hizkuntza beste nonbaiten egin bada, ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- e) 1. ebaluazioa amaitu ondoren, ikasle batek instrumentu batean matrikulatzen bada, hurrengo ikasturteetik aurrera Musika Hizkuntzako 2 kurtso egin beharko ditu nahitaez, plaza gorde ahal izateko.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

39. artikulua. Taldeko ikasgaiak.

- a) Taldeko ikasgaien ordutegiak webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko dira matrikulazio-epea hasi baino astebete lehenago.
- b) Taldeko ikasgaien ordutegiak aldatu egiten dira ikasturte batetik bestera. Beraz, ikasleek/familiiek aukeratuko dute taldea.
- c) Behin ikasturtea hasita, edozein mailatako taldeko ikasgaietan (instrumentalak izan ezik) matrikulatu nahi izanez gero, matrikula 2. ebaluazioa hasi baino lehen egin beharko da.

2. KAPITULUA – KUOTAK

40. artikulua. Kuotak

- a) Behin inskripzioa eginda, ez da matrikula-kuota itzultzeko eskubiderik izango.
- b) Familia ugarietako kideek % 50eko murrizketa izango dute matrikularen/matrikulen kuota/kuotetan.
- c) Eskolan familia-unitate bereko 3 edo 4 kide ikasten ari badira, murrizketa Eskolan matrikulatutako hurrenkeraren arabera aplikatuko da, eta ez ikasturtean matrikulatutako hurrenkeraren arabera.
 - 1. 3 kide badira, % 50eko murrizketa aplikatuko zaio eskolan matrikulatu den hirugarren kidearen kuota osoari.
 - 2. 4 kide badira, %100eko murrizketa aplikatuko zaio eskolan matrikulatu den laugarren kidearen kuota osoari.
- d) Kuotak kobratzeko agindua hileko azken astean emango da, banku-helbideratzearen bidez. Ordainagiri bat itzultzearen ondoriozko banku-gastuak ikasleak ordainduko ditu.
- e) Matrikula-kuotak eta hileko kuotak eguneratzeko erabakia Zuzendaritza Batzordeari dagokio.

3. KAPITULUA – BAJAK

41. artikulua. Baja emateko arrazoiak eta ondorioak.

- a) Ezarritako epean kuotak ordaintzen ez dituen ikasleari baja emango zaio.
- b) Ikasturtearen hasieratik ekainera bitartean baja ematen duen ikasleak Eskolako ikasle gisa dituen eskubide guztiak galduko ditu.
- c) Ikasleak Eskolan berriro matrikulatu nahi badu, ikasle berri gisa egin beharko du plaza-eskaera.
- d) Gaixotasunagatik edo justifikatutako beste arrazoiren batengatik klaseetara ez joateagatik, ikaslearen plaza gorde ahal izango da gehienez hiruhileko batean, betiere dagokion kuota ordaintzen jarraitzen bada.
- e) Justifikatutako salbuespenezko kasuak Zuzendaritza Batzordeak ebatziko ditu.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

42. artikulua. Baja emateko prozedura.

- a) Baja emateko, baja eskatzeko inprimakia ([IV.ERANSKINA](#)) bete behar da. Inprimakia Idazkaritzan eskatuko da edo webgunetik deskargatuko da eta, bete ondoren, Idazkaritzan utziko da edo posta elektronikoz bidaliko da Eskolara.
- b) Baja-eskaera ikasleak berak (adin nagusikoa bada) edo aitak, amak edo legezko tutoreak (adingabea bada) aurkeztu beharko dute.
- c) Baja ematea eskatuz gero, baja-eskaera aurkeztu deneko epea amaitu arteko kuotak kobratuko dira.

43. artikulua. Baja emateko epeak.

Behin ikasturtea hasita, baja eman nahi izanez gero, nahitaez, baldintza hauetan egin beharko da:

- a) 1.epea: irailetik abendura bitartean jakinarazitako baja (biak barne) abendura arte ordainduko dira kuotak (biak barne).
- b) 2.epea: urtarrila eta martxoa bitartean jakinarazitako baja (biak barne) martxora arteko kuotak ordainduko dira (biak barne)
- c) 3.epea: apirilaren 1etik aurrera jakinarazitako baja, ekainera arteko kuotak ordainduko dira.

4. KAPITULUA – ESKOLA-EGUTEGIA

44. artikulua. Eskola-egutegiren onarpena.

Aplikatu beharreko eskola-egutegia Zuzendaritza Batzordeak ikasturte bakoitzerako onartutakoa izango da.

5. KAPITULUA – URTEKO PLANA ETA URTEKO MEMORIA

45. artikulua. Eskolaren Urteko Plana.

- a) Eskolaren Urteko Plana ikasturte bakoitzerako Hezkuntza Proiektua definitzen duen dokumentua da, eta Eskolako hezkuntza-jarduera guztien garapen koordinatua bermatzen du, besteak beste, honako hauek barne hartuta:
 - Ikasturterako helburuak
 - Eskola egutegia
 - Jarduera osagarrien programa
 - Eskolako komunikazio plana
 - Ekonomia kudeaketarako plana
- b) Urteko Plana Zuzendaritza Batzordeak onartuko du.
- c) Zuzendaritza Batzordeak Urteko Plana onartu ondoren, argitara emango da eta hezkuntza-komunitate osoaren eskura egongo da.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

46. artikulua. Eskolaren Urteko Memoria.

- a) Urteko Memoriak, hezkuntza-komunitatea osatzen duten estamentu guztien ebaluaziotik abiatuta, Urteko Planaren betetze-maila jasotzen du eta Eskolaren antolamendua eta funtzionamendua hobetzeko proposamenak ezartzen ditu, besteak beste, honako alderdi hauek jasotzen ditu:
 - Helburuen eta jardueren ebaluazioa
 - Irakaskuntza jarduera osagarrien programaren ebaluazioa
 - Ekonomia kudeaketaren ebaluazioa
 - Ondorioak eta hobekuntza proposamenak
- b) Zuzendaritza Batzordeak gainbegiratu du Memoria, urteko ohiko bilkuran Batzar Nagusiak onar dezan.
- c) Batzar Nagusiak Memoria onartu ondoren, argitara emango da eta hezkuntza-komunitate osoaren eskura egongo da.

6. KAPITULUA – ERREKLAMAZIOAK

47. artikulua. Zuzendaritza Batzordean erreklamazioak aurkezteko prozedura.

- a) Erreklamazioa idatziz ([V.ERANSKINA](#)) aurkeztu beharko da nahitaez. Erreklamazio-inprimakia Idazkaritzan eskatuko da edo web gunetik deskargatuko da, eta, bete ondoren, Idazkaritzan utziko da edo posta elektronikoko bidez bidaliko da Eskolara.
- b) Zuzendaritza Batzordeak, kasua ebatzi ondoren, ebazpena ([VI.ERANSKINA](#)) interesdunari helaraziko dio, erreklamazioa aurkeztu eta gehienez 15 egun baliouduneko epean.
- c) Interesdunak 7 egun baliouduneko epea izango du, jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita, Zuzendaritza Batzordeak ebatzitakoaren aurka idatziz errekurtsioa aurkezteko.

7. KAPITULUA – TRAMITEAK

48. artikulua. INIKA plataforma.

Eskolako tramite administratiboak eta akademikoak INIKA plataformaren bidez egingo dira, eta, beraz, nahitaezkoa izango da bertara sartzea Eskolak eskatzen dituen tramiteak egiteko, jakinarazpenak jasotzeko eta irakasleekin komunikatzeko.

49. artikulua. Idazkaritza.

- a) Eskolako erabiltzaileek Eskolako Idazkaritzara jo beharko dute, besteak beste, edozein zalantza argitzeko eta administrazio-izapideak egiteko, hala nola baja emateko, datu pertsonalak eguneratzeko, erreklamazio bat aurkezteko, etab.
- b) Eskolako Idazkaritza zabalik egongo da eskola egunetan, goizez eta arratsaldez. Jendaurreko ordutegia Eskolaren webgunean argitaratuta egongo da.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

V. TITULUA – BIZIKIDETZARAKO ARAUDIA

1. KAPITULUA – BIZIKIDETZA-ARAUEN HELBURU NAGUSIA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak Eskolako bizikidetza demokratikoa eta Eskolako kide guztien oinarrizko eskubideak errespetatzea ahalbidetzen duten balioetan oinarritutako hezkuntza-jarduera garatuko du.

Bizikidetza hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien artean sortzen diren harremanen bidez eraikitzen da, eta bizikidetza hori positiboa izango da, betiere eraikuntza hori errespetuan oinarritzen bada eta guztien desberdintasunak eta iritziak berdintasunez onartzen badira.

Araudi honetan planteatutako bizikidetza-arauek ikuspegi hezitzaile eta positibo bati erantzuten diote; izan ere, gure ustez, arau horiek Eskolan sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan eta hezitzailean konpontzera eta kide guztien aniztasunarekiko eta berdintasunarekiko errespetua bermatzera bideratuta egon behar dute.

Eskolako gobernu-organismoek, beren eskumenen esparruan, araudi honetan jasotako bizikidetza-arauek behar bezala errespetatzen dituztela bermatu beharko dute.

2. KAPITULUA – HEZKUNTZA KOMUNITATEKO KIDEEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

50. artikulua. Hezkuntza komunitateko kideen eskubideak.

- a) Beren eskubideak, osotasuna eta duintasuna errespetatzea, eta datu pertsonalak babestea.
- b) Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Araudia ezagutzea.
- c) Eskolako funtzionamenduan eta jardueretan parte hartzea.
- d) Eskolako Zuzendaritari edo/eta zuzendaritza Batzordeari erreklamazioa egitea, norbere eskubideak urratu direla uste bada.
- e) Iradokizunak eta erreklamazioak idatziz aurkeztea Zuzendaritza Batzordeari, aztertu eta, behar izanez gero, ebatz ditzan.
- f) Zuzendaritza Batzorderako hautagaitza aurkeztea.
- g) Bizkargi Musika eta Dantza Eskola Elkarteko kide izatetik eratorritako beste edozein eskubide.

51. artikulua. Hezkuntza komunitateko kideen betebeharrak.

- a) Eskolako kide guztien eskubideak errespetatzea.
- b) Eskolako Hezkuntza Proiektua eta Araudia errespetatu eta betetzea.
- c) Araudi hau eta Eskolako Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Batzordeak emandako ebazpenak bete eta aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen gainerako betebeharrak.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

3. KAPITULUA – IKASLEEN ARAU-HAUSTEAK

52. artikulua. Arau-hauste arinak.

- a) Klaseetara bertaratzea
 - 1. Hiruhileko berean justifikatu gabeko 3 hutsegite metatzea.
- b) Instalazioak eta materiala
 - 1. Eskolako instalazioei, materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei nahita kalte arinak eragitea.
 - 2. Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien baimenik gabe.
 - 3. Eskola barruan jolastea.
- c) Hezkuntza komunitateko kideen arteko harremanak
 - 1. Hezkuntza komunitateko kideekiko edozein jarrera, keinu edo hitz desegokiak, baldin eta larriak ez badira.
 - 2. Hezkuntza komunitateko kideen aurkako eraso fisiko arinak.
 - 3. Irakasleen jarraibideei edo aginduei jaramonik ez egitea.
 - 4. Irakaslearen azalpenak behin eta berriz etetea.
 - 5. Ikaskideen ikasteko beren eskubidea urratuko duen edozein jarduera.
 - 6. Gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
 - 7. Ezarritako neurri zuzentzaileak es betetzea.
- d) Norberaren beste edozein betebeharrak ez betetzea
 - 1. Norberaren betebeharrak beste edozein ez betetze, betiere hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori Eskolako bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatua ez badago.

53. artikulua. Arau-hauste larriak.

- a) Berrerortzeak
 - 1. Hiruhileko berean 3 arau-hauste arin metatzea.
- b) Klaseetara bertaratzea
 - 1. Ikasturteko klase-ordu guztien % 20ra hutsegitea.
- c) Eskolako dokumentuak
 - 1. Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen Eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, lapurtzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.
- d) Materiala eta instalazioak
 - 1. Kalte larriak eragitea bidegabeko erabilera gatik Eskolako instalazioei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza komunitateko kideen gauzei.
 - 2. Lapurreak.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

3. Hezkuntza-komunitateko edozein kideri lesio fisikoak eragin diezazkioketen objektuak zuhurtzirik gabe erabiltzea.
 4. Eskolaren segurtasunerako elementuak (alarma, su itzalgailuak, larrialdietarako ateak...) erabiltzea edo haiei nahita kalteak egitea.
- e) Teknologia berriak
1. Eskolako sistema informatikoan aldaketak egiteko sartzea.
 2. Besteen ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea ez errespetatzea, grabazio-bitartekoak erabiliz haien edo gurasoen edo legezko ordezkarien baimenik gabe.
- f) Hezkuntza komunitateko kideen arteko harremanak
1. Eskolako Zuzendariak eta Zuzendaritza Batzordeak indarrean dagoen Araudia betearazteko hartutako erabakiak edo/eta emandako ebazpenak ez betetzea.
 2. Eskolako zuzendariaren edo irakasleen aginduak ez betetzea, diziplinarik eza, irainak, mespretxuak, erronkak edo mehatxuak eragiten dituztenean.
 3. Jokabidea zuzentzeko ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzea.
 4. Gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza komunitateko beste kide batzuei kalte larria egiten bazaie.
 5. Ikaskideen edo hezkuntza komunitateko gainerako kideen aurkako irain larriak, mehatxuak, eraso psikologiko edo fisikoak.
 6. Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irain oso larriak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
 7. Sexu-jazarpena: pertsona bati bere sexua dela-eta egiten zaion edozein motatako hitzezko jazarpena, keinuzko jazarpena edo jazarpen fisikoa.
- g) Norberaren beste edozein betebeharrak ez betetzea
1. Hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak gauzatzea larriki oztokatzen edo eragozten duen beste edozein betebeharrak ez betetzea.

4. KAPITULUA – IKASLEEN ARAU-HAUSTEAK ZUZENTZEA

54. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko organo eskudunak.

- a) Eskolako irakasle guztiek ikasleen arau-hauste arinak berehala zuzentzeko eskumena dute.
- b) Zuzendaria da arau-hauste larriak eta oso larriak zuzentzeko organo eskuduna.
- c) Irakasle guztiek dute eskumena ikasleari errieta egiteko, haien aurrean arau-hauste larria edo oso larria gertatzen denean. Irakasleek, halaber, ikaslea zuzendariarengana bidaltzeko eskumena dute, betiere, pertsonak edota objektuek kalteak jasotzea ekiditeko berehala hartu behar diren neurriak bazter utzi gabe.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- d) Zuzendaritza Batzordea da Eskolako zuzendariak hartu dituen erabakiak berrikusteko eskumena duen organoa.

55. artikulua. Arau-hauste arinak zuzentzeko neurriak.

Irakasleak ondorengo neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko du jokabide desegokia:

- a) Ikasleari ahoz kargu hartzea eta familiari idatzizko jakinarazpena posta elektronikoz helaraztea.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea eta, hala badagokio, barkamena eskatzea.
- c) Instalazioetan, materialean edo hezkuntza komunitateko beste kideen gauzetan eragindako kaltea konpontzea edo ordaintzea.

56. artikulua. Arau-hauste larriak zuzentzeko neurriak.

Zuzendariak arau-hauste larriak zuzentzeko Araudi honen 55.artikulan aipaturiko neurriez gain, ondorengo neurrietako bat edo gehiago ezar ditzake:

- a) Kargu hartze idatzia.
- b) Ikaslearen gurasoekin edo lege-ordezkariekin elkarrizketatu arte egiten klaseetara joateko eskubidea etetea, gehienez 3 egun.
- c) Eskolatik aldi baterako edo behin betiko kanporatzea eta, azken kasu horretan, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko eskubidea galtzea.
- d) Kalte materialen kasuan, haien konponketagatik kalte-ordaina ematea.
- e) Lapurreten kasuan, ostutakoa itzultzea. Ikaslea adingabea bada, haren gurasoak edo legezko tutoreak izanen dira erantzule zibilak, legeek xedaturikoarekin bat.

57. artikulua. Arau-hauste arinak zuzentzeko prozedura.

Irakasleek ahoz eta berehala zuzenduko dituzte arau-hauste arinak, eta, hala badagokio, idatziz jakinaraziko diote familiari, posta elektronikoz.

58. artikulua. Arau-hauste larriak zuzentzeko prozedura.

- a) Arau hauste larriak zuzentzeko prozedura ofizios hasiko da eta idatziz ([VII. ERANSKINA](#)). egingo da Hasierako egintzak honako hauek barne hartu behar ditu:
 1. Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen azalpena.
 2. Araudi honen 53. artikuluko arau-hauste larriren batean kokatzea.
 3. Ikasleari leporatzen zaion jokabidearen izaera kontuan harturik aplikatu daitezkeen neurriak.
 4. Halaber, erregelamendu honen 63. artikuluan aurreikusitako adiskidetze edo erreparazioagatiko prozeduraren etete-kasuak ere jasoko dira.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

59. artikulua. Neurri zuzentzaileak aplikatzerakoan kontuan hartuko diren inguruabarrak.

- a) Inguruabar aringarriak:
 - 1. Zuzendu beharreko jokabidea desegokia dela berehala onartzea.
 - 2. Aurretik neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
 - 3. Jendaurrean barkamena eskatzea.
 - 4. Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.
 - 5. Hain kalte larria eragiteko asmorik ez izatea.
- b) Inguruabar astungarriak:
 - 1. Adingabekoen, minusbaliatuen, gaitasun fisiko txikiagoa dutenen edo nagusitasun-abusua dagoela adierazten duen beste edozein inguruabarren aurka egindako arau-hausteak.
 - 2. Kaltea nahita egina izatea edo alde zuzentzailearen prestatu ondoren egitea.

60. artikulua. Prozeduraren hasierako jakinarazpena.

- a) Hasierako egintza, beti, egotzitako jokabidearen erantzule den ikasleari jakinaraziko zaio, bai eta haren gurasoei edo legezko tutoreei ere, adingabea bada. [\(VII.ERANSKINA\)](#)
- b) Jakinarazpenarekin batera ikasleari zitazioa egingo zaio entzunaldiako eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko tutoreei ere bai. Zitazio horretan entzunaldiaren eguna eta ordua zehaztuko dira.

61. artikulua. Entzunaldiaren izapidea. [\(VIII. ERANSKINA\)](#)

- a) Entzunaldiaren izapidearen bidez, ikasleak entzuna izateko eta bere burua defendatzeko duen eskubidea bermatu ahal izango da. Beraz, hasierako egintzaren edukari buruz eta eskolak bere erabakiaren oinarri gisa hartuko duen informazio osoari buruz, ikasleak egokitzat jotzen dituen alegazioak egin ahal izango ditu.
- b) Ikasleari entzutea derrigorrezkoa izango da kasu guztietan, ikaslearen adina eta hartu beharreko neurria edozein dela ere. Ikasle adingabeek eskubidea dute entzunaldian beren gurasoek edo legezko tutoreek laguntza emateko. Azken horiek, nahi izanez gero, alegazioak egin ahal izango dituzte, betiere ikasleak alegazioak bere egin baditu.
- c) Entzunaldiaren izapidea, gehienez, hasierako egintza jakinarazten denetik 3 eguneko epean egin beharko da. Entzunaldira agertu ez arren, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.
- d) Aurkeztu diren alegazioak idatziz jaso behar dira.

62. artikulua. Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileen jakinarazpena.

- a) Hartutako erabakia idazki batean [\(IX.ERANSKINA\)](#) jasoko du zuzendariak, arrazoiak azalduta. Era berean, dagozkion gertakizunak eta zuzenbideko oinarriak bilduko ditu, baita erreklamaziorik edo errekurtsorik ebatsi behar izanez gero hartarako eskumena



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

duen organoak kontuan izan beharreko alderdi guztiak bildu ere. Gutxienez, honako hauek agerraraziko dira:

1. Gertakizunen deskribapena.
 2. Ikasleak bere jokabidea onartzeko, ukatzeko, zehazteko edo azaltzeko egin dituen alegazioak edo adierazpenak, eta, hala badagokio, gurasoek edo legezko ordezkariak egin dituztenak, baita egon daitezkeen lekuko deklazioak ere.
 3. Zuzendariaren iritziz ikaslearen jokabidearekiko zirkunstantzia astungarriak, aringarriak, edo ikaslea errugabetzeko inguruabarrik ba ote dagoen ala ez.
 4. Ezarriko diren neurri zuzentzaileak. Neurri honek hasierako egintzaren jakinarazpenean ezarritakoak izango dira.
 5. Neurriak aplikatzeko unea. Neurriak inoiz ez dira aplikatuko Zuzendaritza Batzordearen aurrean erreklamazioak egiteko epea amaitu aurretik.
 6. Zuzendaritza Batzordearen aurrean aipatutako erreklamazioa aurkezteko epea.
- b) Zuzendariak bere erabakia hartu beharko du entzunaldia egin eta hurrengo eskola-eguna amaitu aurretik. Zuzendariaren erabakia, hortaz, ikasleari eta, ikaslea adingabea bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die.

63. artikulua. Prozedura bertan behera uztea. ([X.ERANSKINA](#))

- a) Lehentasunez, eskubideak urratu zaizkion ikaslearen eta arau hauslearen arteko adiskidetzeari bilatuko du zuzendariak. Gainera, ahal izanez gero, eragindako kalte materialak edo moralak konpontzen saiatuko da.
- b) Adiskidetzeari prozedura etengo du. Adiskidetzeari izango da honako hauek ematen badira:
 1. Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzari kalte larriak edo oso kalte larriak eragiten dizkiola, eta, beraz, urratu egin dituela hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak.
 2. Ikasleak barkamena eskatzea.
 3. Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, Eskolako organo eskudunak barkamena onartzea.
- c) Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzari kalte larriak edo hari kalte oso larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.
- d) Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie Eskolako Zuzendaritza Batzordeari eta irakasleen klaustroari.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

64. artikulua. Zuzendaritza Batzordeari erreklamazioa egitea.

- a) Ikasleak edo, hala badagokio, bere gurasoek edo legezko ordezkariak, zuzendariak hartutako erabakia berrikusteko eskatu ahal izango dute, Zuzendaritza Batzordeari erreklamazio bat aurkeztuz. ([V.ERANSKINA](#))
- b) Zuzendaritza Batzordeak, kontuan hartuta, batetik, ikasleari aplikatuko litzaizkiokeen neurri zuzentzaileen idazkia, eta, bestetik, ikaslearen erreklamazioan jasotako alegazioak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoenak edo legezko ordezkariak, neurri horiek berretsiko ditu, erregelamendu honetan aurreikusitakoarekin bat datorrela uste badu, edo, bestela, erabaki hori berrikustea erabakiko du.
 - a) Zuzendaritza Batzordeak gehienez 3 eguneko epean eman beharko du ebazpena. ([VI. ERANSKINA](#))

VI. TITULUA – AZKEN XEDAPENAK

65. artikulua. Araudi honetan jasotakoarekin kontraesanean dauden edo kontra egiten dioten maila bereko edo txikiagoko arau guztiak indargabetuko dira.

66. artikulua. Hezkuntza Komunitate osoak bete behar du Araudi honetan xedatutakoa.

67. artikulua. Musika eta Dantza Eskolako Zuzendariak eta Zuzendaritza Batzordeak araudiaren aplikazioa zainduko dute.

68. artikulua. Erregelamendu hau aldatu, zabaldu edo berrikusi ahal izango da, elkartekideetako edozeinek hala eskatzen badu. Aldaketa-proposamenak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan.

VII. TITULUA – ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: Jarduera osagarria onartzea
- II. ERANSKINA: Irakasle lanera huts egitea
- III. ERANSKINA: Eskolako instalazioak eta materiala erabiltzeko eskabidea
- IV. ERANSKINA: Baja ematea
- V. ERANSKINA: Zuzendaritza Batzordeari erreklamazioa aurkeztea
- VI. ERANSKINA: Zuzendaritza Batzordearen ebazpena
- VII. ERANSKINA: Prozedura hastea
- VIII. ERANSKINA: Entzunaldia
- IX. ERANSKINA: Neurri zuzentzaileen jakinarazpena
- X. ERANSKINA: Prozedura bertan behera uztea